

**OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO**

**2023KO APIRILAREN 24A / 24 DE ABRIL DE 2023**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO  
GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido  
jauna

**ALKATEA / ALCALDE**

D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).  
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).  
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).  
D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).  
Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).  
D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).  
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).  
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).  
D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).  
Dña. M<sup>a</sup> Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).  
Dña. Maria Elena Ibañez anuncibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).  
D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).  
Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).  
D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).  
Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).  
Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).  
D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).  
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).  
Dña. M<sup>a</sup> Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).

Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:

La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:

**Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2023ko apirilaren 24an, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.**

**En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 24 de abril de 2023, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as.**

**Alkate** jaunak bilerari hasiera eman dio eta honako hau aztertu da:

El Sr. **Alcalde** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

### **GAI-ZERRENDA**

**1. 2023ko martxoaren 22ko eta 27ko bilkurei dagozkien akta-zirriborroak onartzea.**

#### **BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUAK.**

**ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).**

**KONTRAKO BOTOAK: (0).**

**ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).**

### **ORDEN DEL DÍA**

**1. Aprobación de los borradores de actas correspondientes a las sesiones de 22 y 27 de marzo de 2023.**

#### **RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADAS.**

**VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).**

**VOTOS EN CONTRA: (0).**

**ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).**

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea.**

Azaroaren 28ko Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **Alkate jaunak** azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du.

**2. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales el **Sr. Alcalde** da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

**3. Kontu-ematea. Kontu-hartzaileak egindako txostena: 2022-1 eragozpen-oharra.**

**3. Dación de cuentas. Informe emitido por el Interventor: Nota de reparo 01-2022.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

**ERAGOZPEN-OHARRA**

**(1-2022)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, "K.A 1173 Saskibaloia" taldeari Untzaga plaza okupatzeko baimena eman zion eta

**NOTA DE REPARO**

**(1-2022)**

En relación al acuerdo de Junta de Gobierno Local celebrada el 20 de mayo de 2022, en la que se autoriza la ocupación de la Plaza Unzaga Al "K.A. 1173 saskibaloia de Eibar" y se

erabaki zuen ez kobratzea erabilera publiko orokorreko lurren okupazio-tasa.

Eta, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 215. artikulua eta abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 10. artikulua arabera — Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitate-araudia onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena—, honako hau egiten da:

#### ERAGOZPEN-OHARRA

LEHENA Maiatzaren 20ko Gobernu Batzarreko bosgarren puntuan, aipatutako jarduera egiteko eremu publikoa okupatzeko baimena aztertzean, okupazio horri dagokion tasa kobratzea proposatzen zen, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantzan ezarritakoaren arabera: “Tasa ordaindu behar da erabilera publikoko udal lurzoruak diru irabazi asmoz okupatzeko. Eskareri dagokion

acuerda no proceder al cobro de la tasa de ocupación de terrenos de uso público general.

Y, de conformidad con el artículo 215 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, y el artículo 10 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa se emite la siguiente

#### NOTA DE REPARO

PRIMERO. El punto quinto de la Junta de Gobierno del 20 de mayo en el que se trataba la autorización de la ocupación de vía pública referente a la realización de la actividad indicada, proponía el cobro de la tasa correspondiente a dicha ocupación conforme a lo que establece la Ordenanza reguladora de Tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local: “La ocupación de terrenos de uso público municipal con finalidad lucrativa está sujeta a tasa. El importe

tasaren zenbatekoa 2.006,86 eurokoa da.”

BIGARRENA. Nahiz eta lehen puntuan azaldu den proposamena egin, erabaki zen ez kobratzea udal erabilera publikoko lurren okupazioa. Erabaki hori, Alkatetzaren txosten batek babestua, era honetan azaltzen da Gobernu Batzarraren irizpenean:

Iritziak elkarri adierazi ondoren eta Alkatetzaren txosten hau ikusita: “Alkatetzaren txostena, Eibarko CD KA 1173 Saskibaloia kirol-klubak jarduera bat egiteko espazio publikoa lagatzeko egindako eskaera dela-eta. Eibarko KA 1173 Saskibaloia kirol-klubak jaiegun bat antolatzeko asmoa du denboraldiaren amaiera ospatzeko, eta, aldi berean, urte osoan zehar klubak egiten duen lana herritarrekin partekatzeko, datorren denboraldirako taldearekin bat egin nahi duten pertsonengana iristeko xedez.

Hala, ekimen hori egiteko, Eibar Saskibaloiak ekainaren 4an Untzaga plaza okupatzea eskatu du, harmailen aldea, 9:00etatik 15:00etara

Eskaera hori Eibarko Udalean jaso ondoren, egiaztatu da aipatutako kluba ez dagoela Eibarko herriaren Onerako

de la tasa correspondiente a la solicitud de referencia es de 2.006,86 euros.”

SEGUNDO. Pese a la propuesta descrita en el punto primero, se acordó no proceder al cobro de ocupación de terrenos de uso público municipal. Esta decisión, respaldada por un informe de alcaldía, se explica de la siguiente forma en el dictamen de Junta de Gobierno:

Tras un cambio de impresiones y visto el informe de alcaldía que dice lo siguiente: “Informe de alcaldía ante la solicitud del CD KA 1173 Saskibaloia de Eibar de cesión de espacio público para la celebración de una actividad El CD KA 1173 Saskibaloia de Eibar tiene prevista la organización de una jornada festiva para la celebrar el final de la temporada, a la vez que compartirá con la ciudadanía el trabajo que realiza el club durante todo el año a fin de llegar a aquellas personas que deseen asociarse al mismo para la próxima temporada.

Así, para el desarrollo de este evento, el Eibar Saskibaloia ha solicitado la ocupación de la plaza de Untzaga, en el lado de las gradas, en horario de 9:00 a 15:00, para el 4 de junio.

Recibida esta solicitud en el Ayuntamiento de Eibar, se ha constatado que el referido Club no está

Irabazirik Gabeko Elkarteen Erregistroan sartuta, eta, beraz, nahitaezkoa dela bide publikoa okupatzeari dagokion tasa kobratzea.

Nolanahi ere, kontuan hartuta eibartarren artean jarduera fisikoa sustatzeko oso lan garrantzitsua egiten duen kluba dela, eta gure hirian gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari dela, egokitzat jotzen da Eibarko KA 1173 Saskibaloia kirol-klubari aipatutako tasa kobratzetik salbustea, eta eskatutako espazioa doan uztea.

Horren haritik, adierazi behar da, aldi berean, Udalak Klubari adierazi diola egin beharreko izapideak egin beharko lituzkeela erakunde Herriaren Onerako Irabazi Asmorik Gabeko Elkarteen Erregistroan sartzeko, eta, horren aurrean, Klubak jakinarazi du prozedurari ekin diola. Hauxe jakinarazten da aintzat har dadin Eibarko KA 1173 Saskibaloia kirol-klubari espazioa lagatzeko erabakia hartzean.” Udalaren erabilera publikoko lurren okupazio-tasa ez kobratzea erabaki da.

incluido en el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal, por lo que es de carácter obligatorio el cobro de la tasa correspondiente a la ocupación de la vía pública.

Con todo, habida cuenta de que se trata de un Club que realiza una labor muy importante para el fomento de la actividad física entre los/as eibarreses/as, y que está logrando tener cada vez una mayor entidad en nuestra ciudad, se considera oportuno eximir al CD KA 1173 Saskibaloia de Eibar del cobro de la tasa mencionada, cediéndole el espacio solicitado de forma gratuita.

En este sentido, es preciso señalar que, paralelamente, desde el Ayuntamiento se le ha indicado al Club que debería llevar a cabo los trámites pertinentes para incluir la entidad en el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal, ante lo que el Club ha informado que está iniciando el procedimiento. Lo que se comunica para que sea tenido en cuenta en la toma de decisión sobre la cesión del espacio al CD KA 1173 Saskibaloia de Eibar.” Se acuerda no proceder al cobro de la tasa de ocupación de terrenos de uso público municipal.

HIRUGARRENA. Kontu-hartzaitzako organoaren iritziz, oraingoan ez dira betetzen tasak ez kobratzeko inguruabarrak, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantzaren 4.3 artikulua arautzen dituenak, alegia.

Nahiz eta Alkatetzaren txostenean arrazoiak eta justifikazioa eman, Eibarko KA 1173 Saskibaloia elkarteak ez zegoen inskribatuta Herriaren Onerako diru irabazi asmo bariko Elkarteen Erregistroan Gobernu Batzarrak erabakia hartu zuen egunean. Bestalde, salbuespena ere ez litzateke egokituko, izan ere, Udaleko Zerbitzu Sailak adierazitakoaren arabera, irabazi asmorik gabeko erakundeek "baldin eta baimentzen den lanpostuan produktuak edo zerbitzuak saltzen ez badira" jasoko baitute salbuespena.

Beraz, ez dagoenez tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantzaren barruan sartzerik, ezin da salbuetsi Eibarko KA 1173 Saskibaloia tasa ordaintzetik.

TERCERO. A juicio del órgano de intervención, no concurren las circunstancias para la exención del cobro de la tasa reguladas en el artículo 4.3 de la Ordenanza reguladora de Tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

Pese a la justificación y motivos expuestos en el informe de alcaldía, el CD KA 1173 Saskibaloia de Eibar no estaba inscrito en el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal en la fecha de acuerdo de Junta de Gobierno. Por otra parte, tampoco se adecuaría a la exención a la cual las entidades sin ánimo de lucro pueden acogerse "siempre que no exista venta de productos o servicios en el puesto cuya instalación se autoriza" según lo informado por el departamento de Servicios del ayuntamiento.

Por lo tanto, no existiendo encaje normativo dentro de la Ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, no cabe la exención del pago de la tasa al CD KA 1173 Saskibaloia de Eibar.

LAUGARRENA. Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 12. artikulua arabera, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitateari buruzko erregulazio-esparrua arautzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena; Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluekin lotua, HONAKO ERAGOZPEN-IDATZI HAU EGITEN DUT, aplikatzekoa den udal araudian sartzen ez den ordainketa-salbuespen bat delako.

BOSGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.4 artikulua ezarritakoari jarraituz, eragozpenak eragiten dion organoa ez badago ados harekin, Udaltzaren lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hori ezingo da inolaz ere eskuordetu. Aurrekoa eragotzi gabe, desadostasun bat dagoenean, toki-entitateko lehendakariak txostena eskatu

CUARTO. De conformidad con el artículo 12 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa; en relación con el artículo 70.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, FORMULO ESTE ESCRITO DE REPARO, por ser una exención del pago de la tasa que no tiene encaje en la normativa municipal aplicable.

QUINTO. De conformidad con el artículo 70.4 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso. Sin perjuicio de lo anterior, cuando exista una discrepancia, la



ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiko kontrol-organoari, arauz ezar daitekeen prozedurari jarraituz.

SEIGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; baita diru-sarreraren arloan atzemandako anomalia nagusien laburpena ere. Txosten horrek funtzio fiskalizatzailearen jardunari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzun die, fiskalizatzen dituen jarduketaren aukera edo komenentzia konturik gaineratu gabe.

Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Toki-entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean.

Presidencia de la entidad local podrá solicitar informe al órgano de control de la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme al procedimiento que reglamentariamente se establezca.

SEXTO. De conformidad con el artículo 70.6 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor elevará informe al Pleno u órgano equivalente de todas las resoluciones adoptadas por la Presidencia de la entidad local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.

Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.

La Presidencia de la entidad local podrá presentar en el Pleno u órgano equivalente informe justificativo de su actuación.

ZAZPIGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.7 artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, Kontu-hartzailezako organoak, toki-entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki-entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; baita diru-sarreraren arloan antzemandako anomalia nagusien laburpena ere. Dokumentazio horrekin batera, hala badagokio, toki-entitateak aurkeztutako justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira.

Eragozpen-ohar hau egiten da Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste iritzi bati kalterik egiteke.

**4- Kontu-ematea. Kontu-hartzaileak egindako txostena: 2022-2 eragozpen-oharra.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

SÉPTIMO. De conformidad con el artículo 70.7 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor, por mediación de la Presidencia de la entidad local, remitirá anualmente al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por la Presidencia y por el Pleno u órgano equivalente de la entidad local contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la entidad local.

Esta nota de reparo se emite sin perjuicio de otra opinión mejor fundada en Derecho

**4. Dación de cuentas. Informe emitido por el Interventor: Nota de reparo 02-2022.**

El Pleno se da por enterado.

## ERAGOZPEN-OHARRA

(2-2022)

Kultura Batzordeak 2022ko urriaren 18an egindako idazkian Gobernu Batzarrari eskatu zion onar dezala Zeramika Eskolako ikasleak aurkeztutako baja-eskaera.

Eta, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuaren 215. artikulua eta abenduaren 27ko 32/2015 Foru Dekretuaren arabera —Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena— egiten dut honako txosten hau.

## ERAGOZPEN-OHARRA

LEHENA. Kontu-hartzailearen iritziz, interesdunak sorbalda duen patologia arrazoiz egiaztatu badu ere, eta horrek zeramikazko ikastaroan jarraitzeko aukera kentzen badio ere, eskaera honi dagokion

## NOTA DE REPARO

(2-2022)

En relación, a la solicitud de Comisión de Cultura, de fecha 18 de octubre de 2022, mediante la cual se solicita a la Junta de Gobierno, que acepte la solicitud de baja presentada por la alumna de la Escuela de Cerámica.

Y, de conformidad con el artículo 215 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, y el artículo 10 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa se emite la siguiente

## NOTA DE REPARO

PRIMERO. A juicio del órgano de intervención, pese a que la interesada acredita razonadamente su patología en el hombro, la cual imposibilita poder continuar con el curso de cerámica, la

tasari aplikatu beharreko araudiak ez du aurreikusten, inola ere, matrikula itzultzea.

Eta, beraz, zerbitzuak eskaintzeagatik administrazio-tasak ezartzen dituen Ordenantzaren barruan ez dagoenez horren inguruko araudirik, zehazki Zeramika Eskolan ematen diren irakaskuntzen Tasei buruzko Eranskinari dagokionez, sarrera itzultzea ez dator bat Zuzenbidearekin, eta ez litzateke bidezkoa izango itzultzea.

Hori esan ondoren, datozen ekitaldietarako, Kultura Batzordeari (edo Gobernu Batzarrari) ikasturtean zehar baja-eskaerak onartzeko edo berrikusteko ahalmenen bat eman nahian, Ordenantza horren barruan atal bat jaso behar da hauxe esanez: "Behar bezala justifikatutako kasuetan, Kultura Batzordeak (edo Gobernu Batzarrak) erabaki ahal izango du, modu arrazoituan, onar daitekeela ikasleen baja-eskaera, eta onartu ahal izango du ikastaroaren zati proportzionalari dagokion tasa itzultzea, baja hori onartzen denean."

normativa de aplicación a la tasa a la que hace referencia esta solicitud, no prevé la devolución de la matrícula en ningún supuesto.

Y por tanto, no existiendo encaje normativo dentro de la Ordenanza de Tasas por prestación de servicios y Tasas Administrativas, en concreto en lo referido al Anexo Tasas por las enseñanzas impartidas en la Escuela de Cerámica, la devolución del ingreso no es conforme a derecho, y no procedería su devolución.

Dicho esto, para futuros ejercicios, de querer dotar a la Comisión de Cultura (o la Junta de Gobierno) de alguna facultad de revisar o admitir solicitudes de bajas durante el curso, se deberá incluir dentro de la citada ordenanza una mención que recoja que "en aquellos supuestos debidamente justificados, la Comisión de Cultura (o la Junta de Gobierno) podrá apreciar, de forma motiva, que es admisible la solicitud de baja del alumnado, y admitir la devolución de la tasa correspondiente a la parte proporcional del curso, para la que se admite dicha baja".

BIGARRENA. Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 12. artikulua arabera, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitateari buruzko erregulazio-esparrua arautzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluaekin lotua, HONAKO ERAGOZPEN-IDATZI HAU EGITEN DUT, aplikatzekoa den udal araudian sartzen ez den diru-itzulketa bat delako.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.4 artikulua arabera, eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki-entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hori ezingo da inolaz ere eskuordetu. Aurrekoa eragotzi gabe, desadostasun bat dagoenean, toki entitateko lehendakariak txostena eskatu ahalko dio Gipuzkoako Foru Aldundiko

SEGUNDO. De conformidad con el artículo 12 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa; en relación con el artículo 70.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, FORMULO ESTE ESCRITO DE REPARO, por ser una devolución de ingresos que no tiene cabida en la normativa municipal aplicable.

TERCERO. De conformidad con el artículo 70.4 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso. Sin perjuicio de lo anterior, cuando exista una discrepancia, la Presidencia de la entidad local podrá solicitar informe al órgano de control de

kontrol-organoari, araudian ezarritako prozedurari jarraituz.

LAUGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Toki-entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean.

BOSGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei

la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme al procedimiento que reglamentariamente se establezca.

CUARTO. De conformidad con el artículo 70.6 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor elevará informe al Pleno u órgano equivalente de todas las resoluciones adoptadas por la Presidencia de la entidad local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.

Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.

La Presidencia de la entidad local podrá presentar en el Pleno u órgano equivalente informe justificativo de su actuación.

QUINTO. De conformidad con el artículo 70.7 de la Norma Foral

buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.7 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Kontu-hartzailetzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki-entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrekin batera, hala badagokio, toki entitateak aurkeztutako justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira.

Eragozpen-ohar hau egiten da Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste iritzi bati kalterik egiteke.

Eibar, 2022ko urriaren 20an

Kontu-hartzailea,

Sin: Xabier Andres Cambronero

**5. Kontu-ematea. Kontu-hartzaileak egindako txostena: 2023-1 eragozpen-oharra.**

21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor, por mediación de la Presidencia de la entidad local, remitirá anualmente al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por la Presidencia y por el Pleno u órgano equivalente de la entidad local contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la entidad local

Esta nota de reparo se emite sin perjuicio de otra opinión mejor fundada en Derecho

En Eibar, a 20 de octubre de 2022

El Interventor,

Fdo.: Xabier Andres Cambronero

**5. Dación de cuentas. Informe emitido por el Interventor: Nota de reparo 01-2023.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

## ERAGOZPEN-OHARRA

(1-2023)

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 17an hartutako erabakiari dagokionez, zeinak ITURRUA-GOIKOA SCK Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kuotaren % 95eko hobaria emateko eskaera onetsi zuen.

Eta, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege-Dekretuaren 215. artikulua eta abenduaren 27ko 32/2015 Foru Dekretuaren 10. artikulua arabera — Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena— egiten dut honako txosten hau.

ERAGOZPEN-OHARRA

## NOTA DE REPARO

(1-2023)

En relación al acuerdo de Junta de Gobierno Local celebrada el 17 de febrero 2023, en el que se estima la solicitud de bonificar el 95% de la cuota del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, por ITURRUA-GOIKOA, S.C

Y, de conformidad con el artículo 215 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, y el artículo 10 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa se emite la siguiente

NOTA DE REPARO



LEHENENGOA. Errenta eta Diru-bilketa teknikariak, 2023ko urtarrilaren 26ko bere txostenean, ITTURRUA GOIKOA SCK aurkeztutako eskaera ezestea proposatu zuen, ez zuelako betetzen Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren hobaria emateko udal ordenantzak eskatzen duen baldintza. Zehazki, txostenaren seigarren puntu honako hau azaltzen du: “Eskatzaileak adierazitakoaren arabera, ITTURRUA GOIKOA SCKo kideak dira Gizarte Segurantzaren norberaren konturako nekazarien araubide berezian alta emanda daudenak, eta ez sozietatea bera; horregatik, teknikari andre honen ustez, eta zuzenbidean oinarritutako irizpide hoberik ezean, ez da betetzen ordenantzak hobaria emateko eskatzen duen baldintza, obraren jabea (ITTURRUA GOIKOA SC) ez baitago alta emanda araubide berezi horretan”.

Bestalde, proposamen teknikoaren aurka, eta Ogasuneko Batzorde Aholkularian 2023ko otsailaren 13an aho batez erabakitakoarekin bat etorritik, tokiko Gobernu Batzarrak baietsi egin zuen erreferentziako eskaera, eta bere egintza honetan oinarritu zen: “Ordenantza

PRIMERO. La técnica de Rentas y Recaudación, en su informe con fecha de 26 de enero de 2023, propuso la desestimación de la solicitud presentada por ITTURRUA GOIKOA, S.C. por no cumplir el requisito exigido por la Ordenanza municipal para la concesión de la bonificación sobre el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. En concreto en el punto sexto de su informe expone: “Según manifiesta el solicitante son los miembros de ITTURRUA GOIKOA, S.C. los que están dados de alta en el Régimen Especial Agrario de la Seguridad Social por cuenta propia y no la propia sociedad; por lo que, a juicio de esta técnica, y a falta de mejor criterio fundado en derecho, no se cumple el requisito exigido por la Ordenanza para la concesión de la bonificación, ya que el propietario de la obra (ITTURRUA GOIKOA, S.C.) no está dado de alta en dicho Régimen Especial.”

Por su parte, en contra de la propuesta técnica y conforme a lo acordado por unanimidad en la Comisión Asesora de Hacienda de 13 de febrero de 2023, la junta de gobierno local estimó la solicitud de referencia, fundamentando su acto en que “pese a que en forma o

Fiskalaren 5.9 artikulua formen edo hitzez hitz hobaria aplikatzen ez duen arren, funtsean hala egiten du, eta agindu hori kontuan hartzea eta aldatzea erabaki dute, ondorengo instantzietan horrelako kasuek hobaria jaso dezaten Ordenantza Fiskalean.”

BIGARRENA. Udalaren barne-kontrolaren ardura duen organoaren iritziz, kasua salbuespenezkoa bada ere, eta Gobernu Batzarreko kideek antzeko egoeretan erreferentziazko hobaria erregelamenduz jasotzeko prest agertu badira ere, zergaren gaineko hobaria ez dator bat Udal Ordenantzak ezarritakoarekin, ez baita betetzen Ordenantza horrek hobaria emateko eskatzen duen baldintza – obraren jabea (ITTURRUA GOIKOA SC) ez dago alta emanda Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Berezian–.

HIRUGARRENA. Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 12. artikulua arabera, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitateari buruzko erregulazio-esparrua arautzen duen

literalidad del artículo 5.9 de la Ordenanza Fiscal no aplica la bonificación, el fondo sí lo hace y acuerdan tenerlo en cuenta y modificar dicho precepto para que en sucesivas instancias este tipo de supuestos sean objeto de bonificación en la Ordenanza Fiscal.”

SEGUNDO. A juicio del órgano responsable del control interno del ayuntamiento, pese a la excepcionalidad del caso y aunque los miembros de la junta de gobierno han mostrado predisposición a recoger reglamentariamente la bonificación de referencia en situaciones análogas, la bonificación sobre el impuesto no se ajusta a lo establecido en la Ordenanza municipal, ya que no se cumple el requisito exigido por dicha Ordenanza para la concesión de la bonificación -el propietario de la obra (ITTURRUA GOIKOA, S.C.) no está dado de alta en el Régimen Especial Agrario de la Seguridad Social-

TERCERO. De conformidad con el artículo 12 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de

abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikularekin lotua, HONAKO ERAGOZPEN-IDATZI HAU EGITEN DUT, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren gaineko hobari hau ez delako egokitzen aplikagarria den udal-araudian.

LAUGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.4 artikulua ezarritakoaren arabera, eragozpenak eragindako organoa eragozpen-oharrekkin ados ez dagoenean, Udalbatzaren lehendakariak edo buruak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hori ezingo da inolaz ere eskuordetu. Aurrekoa eragotzi gabe, desadostasun bat dagoenean, toki-entitateko lehendakariak txostena eskatu ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiko kontrol-organoari, araudian ezarritako prozedurari jarraituz.

diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa; en relación con el artículo 70.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, FORMULO ESTE ESCRITO DE REPARO, por ser una bonificación sobre el Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras que no tiene encaje en la normativa municipal aplicable.

CUARTO. De conformidad con el artículo 70.4 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, si el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso. Sin perjuicio de lo anterior, cuando exista una discrepancia, la Presidencia de la entidad local podrá solicitar informe al órgano de control de la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme al procedimiento que reglamentariamente se establezca.

BOSGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena ere bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzuniko die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak barneratu gabe.

Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Toki-entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udal Osoko bilkuran edo organo baliokidean.

SEIGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.7 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Kontu-hartzailetzako organoak, toki-entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri

QUINTO. De conformidad con el artículo 70.6 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor elevará informe al Pleno u órgano equivalente de todas las resoluciones adoptadas por la Presidencia de la entidad local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.

Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.

La Presidencia de la entidad local podrá presentar en el Pleno u órgano equivalente informe justificativo de su actuación.

SEXTO. De conformidad con el artículo 70.7 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor, por mediación de la Presidencia de la entidad local, remitirá

Kontuen Euskal Epaitegiari, egindako eragozpenen kontra toki-entitateko lehendakariak eta Udaltzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena ere bidaliko dio. Dokumentazio horrekin batera, hala badagokio, toki-entitateak aurkeztutako justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira.

Eragozpen-ohar hau egiten da Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste iritzi bati kalterik egiteke.

Eibar, 2023ko otsailaren 24an

Kontu-hartzailea,

Sin: Xabier Andres Cambronero

**6. Kontu-ematea. Kontu-hartzaileak egindako txostena: 2023-2 eragozpen-oharra.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

anualmente al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas todas las resoluciones y acuerdos adoptados por la Presidencia y por el Pleno u órgano equivalente de la entidad local contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. A la citada documentación deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la entidad local.

Esta nota de reparo se emite sin perjuicio de otra opinión mejor fundada en Derecho

En Eibar, a 24 de febrero de 2023

El Interventor,

Fdo.: Xabier Andres Cambronero

**6. Dación de cuentas. Informe emitido por el Interventor: Nota de reparo 02-2023.**

El Pleno se da por enterado.

## ERAGOZPEN-OHARRA

(2-2023)

Nerea Lodosa Larrañaga andreak 2023ko urtarrilean pilates, zumba, dantza, dantza-txiki eta aerobic klaseengatik aurkeztu eta Kirolaren, Jarduera fisikoaren eta bizimodu osasuntsuaren Saileko arduradunak baliozkotutako fakturari dagokionez (jaulkipen data 2023.02.22)

Eta bat etorritz Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 215. artikuluekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70. artikuluekin, honako eragozpen-ohar hau egiten dut:

## ERAGOZPEN-OHARRA

LEHENA. Bazterreko obligazioa egiteko proposamena Udalaren Kirol Patronatuak isilbidez edo tazituki luzatutako kontratu baten ondoriozko faktura bati dagokio.

## NOTA DE REPARO

(2-2023)

En relación a la propuesta de pago la factura presentada por Nerea Lodosa Larrañaga por las clases de pilates, zumba, danza, danza-txiki, aerobic. Durante el mes de enero de 2023 (fecha de emisión 22-02-2023) y validada por la responsable del departamento de Deporte, actividad física y vida saludable.

Y, de conformidad con el artículo 215 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, y el artículo 70 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio histórico de Gipuzkoa se emite la siguiente

## NOTA DE REPARO

PRIMERO. La propuesta de la contratación de la obligación al margen hace referencia a una factura derivada de un contrato prorrogado tácitamente

Zentzu horretan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.2 artikulua —Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora— hauxe ezartzen du:

«2. Kontratuak behin edo zenbait aldiz luzatzeko aukera jaso ahal du, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapen horiek irauten duten bitartean; hori ez da eragozpena izango lege honen 203. artikulutik 207. artikulura ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketetarako.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez bidali bazaio aurreabisua; eta kontratuaren baldintza- agiriak hori baino epe luzeagoa ezartzen badu. Aurreabisuaren betebeharretik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak.

Inolaz ere ezingo da kontratua luzatu aldean isilbideko adostasunez.

por el extinto Patronato municipal de Deportes.

En este sentido el artículo 29.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante, LCSP) dispone que:

«2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la presente Ley.

La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato, salvo que en el pliego que rija el contrato se establezca uno mayor. Quedan exceptuados de la obligación de preaviso los contratos cuya duración fuera inferior a dos meses.

En ningún caso podrá producirse la prórroga por el consentimiento tácito de las partes.

(...)

4. Ondoz ondoko prestazioko hornidura-eta zerbitzu-kontratuek bost urte iraungo dute gehienez, denbora horren barnean direla artikulua honen bigarren apartatua aplikatuz eta ente kontratatzaileari aplikatu beharreko aurrekontu-arauetan ezarritako baldintza eta mugak errespetatuz kontratazio-organoak erabakitzen dituen luzapenak (...)."

Artikulua aztertuta, ondoriozta daiteke ezen, kontratu bat tazituki edo isilbidez luzatzea ezinezkoa denez, zerbitzuaren jarraitutasun hutsagatik, argi eta garbi esan dezakegu prestazioaren luzapenak ez lukeela beteko indarrean dagoen legedia.

BIGARRENA. Egoera horretaz jabetuta, Udalaren Kirol Patronatua ahalegindu zen joan zen jardunaldian egoera erregularizatzen. Zehazki, Udalaren Kirol Patronatuburuak 2022ko uztailaren 4an emandako ebazpenaren bidez onetsi zen Pilates, dantza, zumba, aerobic eta gym dance zerbitzuak kontratatzeko espedientea. Lizitazioaren iragarkia 2022ko abuztuaren 29an argitaratu zen. Udalak atzera egin du prozeduran, Alkatezak 2023ko otsailaren 14an

(...)

4. Los contratos de suministros y de servicios de prestación sucesiva tendrán un plazo máximo de duración de cinco años, incluyendo las posibles prórrogas que en aplicación del apartado segundo de este artículo acuerde el órgano de contratación, respetando las condiciones y límites establecidos en las respectivas normas presupuestarias que sean aplicables al ente contratante (...)"

Examinado el artículo, puede concluirse que, al ser imposible la prórroga de un contrato de manera tácita, por la mera continuidad del servicio, podemos advertir con total claridad que la prórroga del de la prestación incumpliría con la legalidad vigente.

SEGUNDO. Concedores de esta situación el Patronato Municipal de Deportes trató de regularizar la situación el pasado ejercicio. En concreto, mediante Resolución del Presidente del Patronato Municipal de Deportes de fecha 4 de julio de 2022, fue aprobado el expediente para la contratación de la prestación del servicio de pilates, danza, zumba, aerobic y gym dance. El anuncio de licitación fue publicado el 29 de agosto



emandako ebazpenean kontestualizatu eta azaltzen duen bezala:

“(…) por Acuerdo del Pleno Municipal de Ayuntamiento de Eibar, se acordó la disolución del Organismo Autónomo Patronato Municipal de Deportes de Eibar y su integración en el Ayuntamiento con efectos del 1 de enero de 2023.

La integración tenía como objetivo principal mejorar la eficacia y eficiencia en la prestación de servicios, así como una mayor coordinación y económica procedimental, y la mejor aplicación de los principios de sostenibilidad y austeridad presupuestaria y, en definitiva, la aplicación óptima de los recursos de la Hacienda Local.

Así las cosas, una vez aprobada la integración se han observado irregularidades en la gestión del personal de la contrata que en la actualidad está prestando el servicio, que tienen su origen en órdenes dadas por la Dirección del Patronato y que pudieran dar lugar a la obligación por parte del Ayuntamiento, de asumir los trabajadores de la contrata que en la actualidad está prestando el servicio.

Por otro lado, se están revisando todos los servicios que ofrecía el Patronato disuelto

de 2022. El ayuntamiento ha desistido del procedimiento tal y como contextualiza y expone la resolución de alcaldía de 14 de febrero 2023:

“(…) por Acuerdo del Pleno Municipal de Ayuntamiento de Eibar, se acordó la disolución del Organismo Autónomo Patronato Municipal de Deportes de Eibar y su integración en el Ayuntamiento con efectos del 1 de enero de 2023.

La integración tenía como objetivo principal mejorar la eficacia y eficiencia en la prestación de servicios, así como una mayor coordinación y económica procedimental, y la mejor aplicación de los principios de sostenibilidad y austeridad presupuestaria y, en definitiva, la aplicación óptima de los recursos de la Hacienda Local.

Así las cosas, una vez aprobada la integración se han observado irregularidades en la gestión del personal de la contrata que en la actualidad está prestando el servicio, que tienen su origen en órdenes dadas por la Dirección del Patronato y que pudieran dar lugar a la obligación por parte del Ayuntamiento, de asumir los trabajadores de la contrata que en la actualidad está prestando el servicio.

Por otro lado, se están revisando todos los servicios que ofrecía el Patronato

y que no se estaban prestando directamente por personal propio, considerándose desde esta Alcaldía que aquéllos servicios que son prestados con estabilidad y en los que la gestión de personal no supondría excesivas dificultades para los servicios del departamento de personal del Ayuntamiento (como es el caso de la prestación del servicios de Pilates, danza, zumba, aerobic y gym dance), sería más eficiente que fueran prestados directamente con personal propio, lo que, en principio, debería suponer un ahorro, al no tener que abonar el Ayuntamiento el IVA ni el beneficio industrial del contratista.

Por lo anteriormente expuesto, desde esta Alcaldía se ha considerado que, en la situación en la que nos encontramos, procede renunciar a la adjudicación del contrato para la prestación del servicio de Pilates, danza, zumba, aerobic y gym dance y que se inicien los trámites para la internalización del servicio.

HIRUGARRENA. Beraz, eragozpen-ohar hau egin den egunean, hauxe dugu: indarrean dagoen legeria betetzen ez duen zerbitzua ari dela ematen, zerbitzua bera Udalean barneratzeko

